

NAIDERREK AUKEREN AZTERKETA EGINGO DU GASTEIZKO ZABALGUNEKO ETXADIETAN

Posted on 13/06/2023 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Ensanxtea](#), [Gasteiz](#), [Hiri-eraldaketa](#)

[Ensanche 21 Zabalgunea](#)ren Kontseiluak, Vitoria-Gasteizko Udalaren Hirigintza Sozietateak, erabaki du Naiderrri esleitzea XIX. mendeko Zabalguneko hiri-etxadietan jarduteko aukerak identifikatu, zehaztu eta teknikoki eta ekonomikoki ebaluatuko dituen azterlana egitea, bi helbururekin: batetik, bizitegi-eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzea, eta, bestetik, "etxadi-patio" izenez ezagutzen diren barne-espazioak lehengoratztea.

[Zabalgunea eko-barruti ekintzailea](#) proiektuaren barruan kokatzen da lana, Zabalguneko auzoak hiriaren indar ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren agertoki nagusi gisa duen papera berreskuratzeko. Proiektu hori antolatzen Naiderrrek lagundu zuen.

